

PRENTSA-OHARRA

Alternatiben Herria Iruñean izango da larunbatean, eta eredu ekonomiko eta sozial berria proposatuko du lantegi, erakusketa eta hitzaldien bidez

Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotziak eta Nafarroako Karta Sozialaren Plataformako ordezkariak hitzarmen bat sinatu dute ekimena bultzatzeko

Heldu den ekainaren 2an, larunbatarekin, *Alternatiben Herria* ekimena Iruñean izango da, eta Alde Zaharreko zenbait txokotan erakutsiko du, lantegi, erakusketa, mahai-inguru eta hitzaldien bidez, posiblea dela kapitalismoa alde batera utzi eta eredu ekonomiko eta sozial alternatibo bat eraikitzea; izan ere, ekimenak erakutsiko du badi-rela halako zenbait proiektu abian. Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi Patricia Peralesek eta Nafarroako Karta Sozialaren Plataformako ordezkari Maitane Unzuak gaur goizean sinatu dute hitzarmen bat, zeinaren bitartez Iruñeko Udalak laguntza emango baitio proiektuari, espazioak lagata. Ekitaldiaren hirugarren edizioa izango da: 2013an abiatu zen, Baionan, eta 2015an berriro egin zen, Bilbon.

Bizitza burujabea eskubide osoz lelopean, hausnarketarako egun bat izan nahi du, balioko duena pertsonen beharrak erdigunean jartzeko eta egunean zehar eztabaidatzeko honako esparru hauei dagozkien alternatiben gainean: gizartea, energia, elikadura, feminismoa, hizkuntza, ekonomia eta politika. Irekiera-ekitaldia 10:00etan izango da, “gune zentrala” delakoan, hots, Vistabellan, eta bertan izango dira, baita ere, egunari buru emango dioten kontzertuak, 20:30etik goizeko ordu bata arte.

6 gai-ardatz, Alde Zaharreko zortzi guneean

Jarduerak sei ardatzekin bat antolatu dira: “auzoEKOnomia” delakoan, ekonomiari helduko zaio hainbat ikuspuntutik, Geltokin egingo diren topaketen bitartez (autobus geltoki zaharrean); “Herriak eta lurra” izenekoan, elikadura-eredu jasangarriagoak izango dituzte hizpide Kondestablearen jauregian, Santa Ana plazan eta Pellejerías zokoan; “bizitza anitzak eta duinak” ardatzean, zapalkuntzen eta indarkerien arteko harremanak aztertuko dira elkarbizitzari begira, eta horretarako zenbait ekitaldi egongo dira Navarrería inguruan; “arragoa” izenekoak hizkuntza-, hezkuntza- eta kultura-ondarea jorratuko du, hainbat esparrutako esperientzien bitartez, San Frantzisko plazan; “parte hartzea, demokrazia, burujabetza” delakoan, Errekoleten

1. orrialdea, (e)tik 2

plazan, eskubide demokratiko eta sozialak lortzeko bide berriak aurkeztuko dira; eta azkenik, O-ko Andre Maria plazan, “haurren errepublika” egongo da.

Hitzarmenean jasotzen denarekin bat, Iruñeko Udalak antolatzaileen esku utziko ditu eskatutako aretoak eta gunek irekiak, eta horrek ez du inolako kosturik izango Udalarentzat. Gune itxiei dagokienez, hauek erabiliko dituzte, besteak beste: San Frantzisko eskolako erabilera-anitzeko aretoa, Kondestablearen jauregia, Erraldioen txokoa, Calderería kaleko aretoa eta Iruñeko autobus-geltoki zaharreko nasak. Nafarroako Karta Sozialaren Plataformak bere gain hartuko ditu gastuak, eta plataforma bera izango da erantzule segurtasun-kontuetan, jardueren kudeaketan eta ekitaldiak gauzatzeko behar den orotan. Nafarroako 40tik gora eragilek osatzen dute jardunaldia prestatzen ari den taldea.

Iruñeko Udalak ekimena babesten du, bat datorrelako Udala bera sustatzen ari den helburuekin; helburu horiek, besteak beste, arlo hauek ukitzen dituzte: ekonomia sozial eta solidarioa; hiriaren jasangarritasuna; entitateen babesa –halakoena ezen herritarren partaidetza babestu eta jende guztiari zuzendutako jarduerak egiten baitituzte–; eta herritarren sentsibilizazioaren zein elkartasunaren sustapena gizarte-kohesio handiagoa lortzeko tresna gisa. Halaber, ekimena bat dator Milango Hiriko Elikadura Politikako Itunarekin, zeinarekin Udalak bat egin baitzuen. Horrez gain, Udalak kontuan hartu du programak Iruñeaz kanpoko bisitariak erakarriko dituela, eta hori pizgarri ekonomikoa izango da hiriko hirugarren sektorearentzat, bai eta aukera aparta Iruñeko turismoa bultzatzeko ere.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 29an

